



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2022/11/22an EGINDAKO OHIKO UDALBATZARRA.

SESIÓN ORDINARIA DE LA CORPORACIÓN. Día 22-11-2022 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Nestor Araran Arexolaleiba
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2022ko azaroaren 22an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarrak, ohiko bileran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Eluska Irazu Henández.

En Eskoriatza, siendo las 18:00horas del día 22 de noviembre de 2022 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Eluska Irazu Henández

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAACX57L.giaH>

2022/11/22
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinaria

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2022/10/25ean egindako osoko bilkurako akta onartu da.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2022ko azaroaren 16ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 23. kreditu aldaketa espedientearen berri.

3.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA GEHIGARRIA ONARTZEA 2022rako.

Besteak beste, sektore publikoaren eremuko lansarien arloan neurriak onartzen dituen urtarrilaren 21eko 18/2022 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikuluan jasotakoaren babesean, Udalbatzarrak, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak emandako irizpenarekin bat etorria, aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea Udal honen zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 1,5eko igoera 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

Bigarrena.- Igoera horiek azaroko nominan ordaintzea.

4.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2022ko hirugarren hiruilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

5.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEN BAJA ONARTZEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturata egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Ogasun eta Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espediente onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

- Preskripzioagatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 35,72 €.

2022/07/01 etik 2022/09/30 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK

IFZ	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	KUOTA	ERREKARGOA	GUZTIRA	ZERGATIA
15302432A	OHZ- LANDALURRAK	2010	3R0308068100W	14,60	2,92	17,52	PREZKRIZIOA.GEA
15302432A	OHZ- LANDALURRAK	2011	3R0308068110O	15,17	3,03	18,20	PREZKRIZIOA.GEA
GUZTIRA				29,77	5,95	35,72	

- Beste arrazoi batzuegatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 6.783,96 €

IFK	KONTZEPTUA	URTEA	ZENBATEKOA	ZERGATIA
S-4833001C	E.J.- Dirulaguntza gehigarria emergentzia soziala	2021	6.783,96	Likidazioaren kalkulua gaizki eginda 2021 urtean Irizpideak aldatu ziren
GUZTIRA			6.783,96	

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzailtza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

6.- E-GOITEK SL-REN FAKTURA ORDAINTZEA (urriko kirol zerbitzuak).

E-Goitek SLk faktura bat aurkeztu du, 2022ko azaroaren 10ekoa (76. faktura), 2022ko urrian emandako zenbait kirol-zerbitzuri dagozkionak.

Idazkari-kontuhartzaileak legezketasun eragozpena jarri dio, 2022ko azaroaren 16an, espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura hori ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, E-GOITEK SL) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

- E-GOITEK SLk aurkeztutako 76. faktura, 2022ko azaroaren 10ekoa, ORDAINTZEKO AGINTZEA. Faktura hori 2022ko urrian emandako zenbait kirol-zerbitzuri dagokie.

7.- ABENDUAREN 28ko 20/2021 LEGETIK ERATORRITAKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUAREN INGURUAN, HORREN KUDEAKETA MATERIALERAKO KUDEAKETA-GOMENDIOA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIARI. HITZARMENA FORMALIZATZEA.

Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak egonkortze-prozesu batzuk egitera behartzen ditu administrazio publiko guztiak, baita Gipuzkoako toki-erakundeak ere, dagoeneko argitaratutako lan-eskaintza publikoen arabera eta lege horretan jasotako aurreikuspenen babesean.

Prozesu horiek toki administrazioaren eremuan garatzen laguntzeko, 20/2021 Legearen lehen xedapen gehigarriak berariaz aurreikusten du toki-erakundeek prozesu horien kudeaketa materiala probintzietako diputazioei gomendioan uzteko aukera. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluaren aurreikusitako biztanle askoko udalerrak gomendioan uztekin kanpo geratzen dira.

20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako merezimendu-lehiaketa bidezko egonkortze-prozesuei dagokienez, udal honek baliabide pertsonal eta

material nahikorik ez duenez, beharrezkotzat jotzen da Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendioan uztea epaimahai kalifikatzaileei dagokien jarduerak. Jarduera hori jarduerak duen eduki materialagatik eta teknikoagatik uzten da gomendioan, eta ez du esan nahi toki-erakundearen titulartasuna, ez eta toki-erakundearen eskumenak erabiltzea ere, transferitzen direnik. Toki-erakundeak adieraziko ditu gomendioan utziko duen jarduera material zehatzaren euskarri edo osagai diren egintza edo ebazpen juridiko guztiak.

Aurrez esandakoarengatik, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua xedatutakoa kontuan izanik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Gipuzkoako Foru Aldundiari GOMENDIOAN UZTEA Kalifikazio Epaimahaiari dagokion jarduera materiala eta teknikoa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako lehiaketa bidezko egonkortze prozesuei dagokienez. Gomendioan sartzan dira lehiaketa bidez beteko diren plaza guztiak, 2022ko maiatzaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (96. zk.) argitaratutako lan-eskaintza publikoaren arabera.

BIGARRENA.- Kudeaketaren gomendioa arautuko duen hitzarmena onartzea.

HIRUGARRENA.- Ahalmena ematea Alkateari erabaki hau gauzatzeko beharrezko dokumentu guztiak sinatzeko.

LAUGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea kudeaketaren gomendio hau berariaz onar dezala.

BOSGARRENA.- Gomendio hau onartuz gero, iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

8.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LAUGARREN LUZAPENA.

Udalbatzarrak, 2018ko uztailaren 24an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua CESP, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren esango diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe.

Prezioak:

- Derrigorrezko zerbitzuak: 153.459,25 euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 15.345,93 euro.
- Aukerako zerbitzuak: 79,99 euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 8 euro.



Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2019ko martxoaren 1etik kontatzen hasita, eta beraz, 2020ko otsailaren 28an amaitu zen. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko zen.

2020ko urtarrilaren 27an URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak. (1. luzapena)

2021eko otsailaren 23an beste URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (2. luzapena).

2022ko otsailaren 22an beste URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (3. luzapena).

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu hau beste urtebetez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak.

Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak kontratua beste urtebetez luzatzeko proposamena egin du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (4. luzapena), 2024ko otsailaren 28ra arte, baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

9.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LAUGARREN LUZAPENA.

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 4an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen 102.192,29 eurotan urteko gehi BEZari dagozkion 21.460,38 eurotan.

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2019ko apirilaren 1etik kontatzen hasita, eta beraz, 2020ko martxoaren 31n amaitu zen bere indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko zen.



Udalbatzarrak, 2020ko urtarrilaren 27an, URTEBETEZ luzatu zuen FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitutako kontratua. (1. luzapena)

2021eko otsailaren 23an beste URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (2. luzapena).

2021eko abenduaren 20an, Udalbatzarrak jaso zuen CESP, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresa FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresaren ondorengoa izango dela 2018ko abenduaren 4an ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko esleitutako kontratua.

2022ko otsailaren 22an beste URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (3. luzapena).

Baldintza administratibo partikularren agiriaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu hau beste urtebetez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak.

Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak kontratua beste urtebetez luzatzeko proposamena egin du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (4. luzapena), hau da, 2024ko martxoaren 31ra arte, baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

10.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN HIRUGARREN LUZAPENA.

Udalbatzarrak, 2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren

adieraziko diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunen menpe.

Prezioak:

- A) Kontratuaren urteko prezioa, BEZ barne, baldintza agirian zehaztutako derrigorrezko zerbitzuei dagokienez, 138.052,60 eurokoa (BEZ gabe) gehi BEZaren % 21ari dagozkion 28.991,05 eurokoa da.

Ordainketa administrazio baldintza partikularren agirian jasotzen den bezala egingo da.

Prezio hori honela banatuta dago eraikinka:

- BEZ gabe honela banakatzen da eraikinka urteko:

Luis Ezeiza Herri Eskola	33.280,80
Haurreskola (biblioteca barne)	20.364,40
Kulunka Haurtzaindegia (eraikin oktagonala)	11.250,40
Ibarraundi Museoa	14.660,80
Zaldibar	3.018,40
Ludoteka	3.694,60
EPA	1.744,40
Elkarteen txokoa	1.293,60
Geltoki zaharra	1.156,40
Artxiboaren lokala	235,20
Kiroldegia	38.200,40
Kiroldegiko garajeak	627,20
Pilotalekua	7.487,20
Komun publikoak	1.038,70
Gaztelekua	138.052,60

B) Aukerako zerbitzuei dagokienez, kontratuaren prezioa honela ezarrita gelditzen da:

ZENTROA	URTEKO KOSTUA GUZTIRA
Kultur Etxea	2.116,80
Musika Eskola	1.411,20
Udaletxea	3.822,00

C) Garbiketa bereziak egiteko aukerako zerbitzuei dagokienez, kontratuaren prezioa honela ezarrita gelditzen da:

ZENTROA	ZERBITZUAREN KOSTUA
Ibarraundi	58,80
Zaldibar	39,20
Pilotalekua	235,20
Udal etxebizitzak (etxebizitzako)	235,20
Kultur etxea	39,20

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2020ko martxoaren 25etik kontatzen hasita, eta beraz, 2021eko martxoaren 24ra arte zuen indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboan agirian ezarritakoa jarraituko da.

Udalbatzarrak, 2021eko otsailaren 23an, URTEBETEZ luzatu zuen HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitutako kontratua. (1. luzapena)

2022ko otsailaren 22an beste URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (2. luzapena).

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu hau beste bi urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikulua 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak kontratua beste urtebetez luzatzeko proposamena egin du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- HEMEN GARBIKETAK enpresari ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZU PUBLIKOA



EMATEKO esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (3. luzapena), hau da, 2023ko martxoaren 24ra arte, baldintza agiriaren hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

11.- GURUTZE GORRIAREKIN HITZARMENA SINATZEA NAZIOARTEKO BABES ESKATZAILEEN ETA ONURADUNEN HARRERA ETA INTEGRAZIO PROGRAMA GARATZEKO.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek ezagutzen dute errefuxiatuak aldi baterako hartzen laguntzeko udal etxebizitza bat Gurutze Gorriari lagatzeko Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak proposatzen duen hitzarmenaren edukia.

Hori horrela, eta egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak garatutako eta Gurutze Gorriak kudeatutako nazioarteko babes eskatzaileen eta onuradunen harrera eta integrazio programa garatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatzea Gurutze Gorriarekin.

Bigarrena.- Hitzarmenarekin hartutako konpromisoak betetzeko, Gurutze Gorriari lau urtez lagatzea, hileko 250 euroko prezioan, Santa Ana 19, 1. esk. helbideko udal etxebizitza. Lagapena espedientean jasotako hitzarmenaren zehaztutako baldintzen pean egiten da.

Hirugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkarietan sinatu dezan.

12.- ESKORIATZAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO ERAKUNDE-ADIERAZPEN PROPOSAMENA: AZAROAK 25-INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Hitza emanda, Dorleta Sologaitxoak hartu du hitza EH BILDU-Eskoriatza taldearen izenean: guk, EUDLEn proposamena ikusi dugun arren, herriko taldeekin bildu eta haien ekarpenak jaso ditugu aurkezten dugun testu honetan. Gaineratu du, orain arteko dinamika berarekin jarraituz, nahiago izan dutela herriko taldeekin bildu eta ekintza zehatzagoak eta herriko errealitatera gehiago zuzendutakoak proposatzea. Jarraian, mozioaren xedapen-zatia irakurri du. Hona hemen mozioaren testua:

*Indarkeria matxisten aurkako nazioarteko
Eguna*

2003tik aurrera, emakumeonganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 115 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi ditugu, 2022an zehar erail dituzten Sara Pina Ieregi, Felisa S. P. eta Maria Luisa Larrañaga.

Urte honetan ere bereziki aipatu nahiko genuke, jai giroan emandako erasoen gorakada eta bereziki sustantzia kimikorik gabeko ziztaden bidez egindakoak. Antolatutako emakumeonganako gorroto baten erakusle dira beldurra eta kontrola bilatzen duten eraso hauek. Hala ere, eraso bakoitzaren aurrean, hauek salatu dituen Mugimendu Feminista saretu bat atera da kalera. Isiltasunak normalizazioa dakarrelako, onarpena. Eta aspaldi esan genuen ez gaudela egoera hau gehiago onartzeko prest.

Urte luze hauetako lana izan da Indarkeriari maskara kentzea. Ez da lau zororen kontua. Sistema patriarkal sendo baten ondorioa baizik. Indarkeria matxistei buruz egindako makro-inkestak datu larria mahai-gaineratu zuen: bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eragiten duen Berdintasun Legearen erreforma egin da pasa den ikasturtean, indarkeria matxistaren kontzeptualizazioa irekiago bat ekarri duena. Espainiar estatuan ere, Askatasun sexualen legea onartu da EH Bilduren babesari esker, besteak beste. Urte luzeetan mugimendu feministak mahai gaineratutako hausnarketak eta eskaerak kokatu dira lege testu hauetan, hala nola abusuaren eta erasoaren arteko banaketarekin amaitzea; indarkeria matxista bikote eremutik at eta hainbat alorretan ematen dela ikustaraztea; indarkeria digitalak, instituzionalak eta obstetrikokoak izendatzea; sexu erasoak atenditzeko krisi zentroak eraikitzea; eta abar luze bat.

Orain, hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da. Garrantzitsua da marko bat ezarriko duten legeak berriztea edo sortzea, are gehiago mugimendu feministak eskatutako norabidean egiten denean, baina hauek ez dute ezertarako balio, garapenerako aurrekontu eta baliabide teknikoak ezartzen ez badira.

Azaroak 25 hau beraz, indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna izango da, jendartean normalizatuen dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahozko lizunkeriak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.

Urte honetan gainera, atzerakada ekonomikoaren mamua haizatzen ari den honetan, inoiz baina ozenago aldarrikatu behar ditugu politika eta zerbitzu publikoak. Berdintasunaren norabidean kokatu edo indarkeria matxistari aurre egiteko baliabideak ere oinarrizko beharizan bezala identifikatzen ditugu. Dauden baliabide eta proposamen egokiak

babestu edo berriak sortzeko momentu aproposa da hau ere. Jendarte hau osatzen dugun guztiok konpromiso hori hartu behar dugu. Eta batez ere erakunde publikoetan gaudenok.

Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez. Eta gure kasuan, erakunde-eremutik jardunez, horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak aktibatuz, berdintasun-unitateak sustatuz eta haiei laguntza eskainiz, berdintasun-teknikarien egonkortasuna edo kontratazioa bultzatuz, edota emakumeen parte-hartzerako guneak sustatuz (emakumeen etxeak eta txokoak, ahalduntze-eskolak, jai parekideak eta abar). Gure herri eta hirietan bermatuta ez dauden heinean, exijitzen jarraituko dugu.

Guzti honengatik, indarkeria matxista gertakarietan funtzionamendu protokoloek erabiltzen dituzten mekanismo guztiak egokiak izatea da giltza; beti ere, indarkeria mota hau pairatzen duten emakumeen ahalduntzea helburu duten ikuspuntu batetik.

Horretarako, instituzio publikoez gain, gai honetan adituak diren pertsonen eta mugimendu feministen parte hartzea beharrezkoa da ezarritako protokoloekin lagundu dezaten, eta azken batean, berdintasunezko etorkizun baterantz abiatu gaitzen.

EH Bildun oso argi dugu indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko ezinbestekoa dela berdintasun-politikei beharrezko giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoak ematea, eta ildo horretan, uste dugu ikuspegi feministarekin lan egin behar dugula, egunero eta eremu guztietan. Krisiak ez du aitzakia izan behar arazo larri eta kolektibo honi aurre egiteko beharrezkoak diren aurrekontuen murrizketa edo izoztea justifikatzeko.

Eta horregatik:

- *Kontzientziazio-, sentsibilizazio-, prestakuntza- eta erreparazio-lana sustatzen jarraituko dugu, indarkeria matxistak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.*
- *Oinarrizko zerbitzu sozialetan lanean diharduten teknikariak generoan formatzeko konpromisoa hartuko du.*
- *Jai giroan ematen diren erasoei erantzuteko eta hauek prebenitzeko protokoloa sortzeko, eta hau Mugimendu Feministarekin eta Jai Batzordearekin batera egiteko konpromisoa hartzen du.*
- *Indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidearen alde guztiak (tartean, egiaren hedapena, kalte-ordainketa, akonpainamendu soziala edo ez errepikatzeko bermea) lantzeko programa iraunkorrak, eta osasun egoerari egokitutakoak, martxan jarriko ditu, besteren artean arlo ezberdinei zuzendutako protokoloak, memoria historikoa berreskuratzea, omenaldiak, jardunaldiak, tailerrak, ikerketak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak, kasu)... jasoz.*
- *Mugimendu Feministak antolatuko dituen mobilizazioetan parte hartzeko deia.*

Josu Ezkurdiak eskertu egin du EH BILDUren proposamena eta, adierazi du gai honetan beti esan duten bezala, beste batzuetan ere, baina, bereziki honetan, elkarrekin lan egitea garrantzitsua dela, eta horregatik proposamen guztiak ondo etorriak direla. Horregatik, beste urteetan ez bezala, bere taldeak aurka bozkatu beharrean abstenitu egingo dela gaineratu du, mozioaren onarpena ez oztopatzeko.

Esan beharrekoak esanda, bozkatu egiten da. Bertaratutako EHBILDUko 2 zinegotziek alde bozkatuta, eta gainerako zinegotziak abstenituta (EAJ/PNVko 6 eta EEEko 1) mozioa onartu da.

13.- EUDELEK ESKATUTA EAJ/PNVK PROPOSATUTAKO ERAKUNDE ADIERAZPENA: AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA.

Hitza emanda, Josu Ezkurdiak adierazi du ez duela testua irakurriko, denek ezagutzen dutelako, baina bai adierazi nahi duela EUDELEk proposatutako testu bat dela, Gipuzkoako eta Euskadiko talde politiko guztien adostasuna duela, eta lehen esan bezala, gai honek lan bateratua eskatzen duela, eta batera egindako lan horren isla gisa adostutako testua dakartela.

Beste inork hitzik hartu ez duenez, bozkatu egin da. EAJ/PNVko 6 zinegotziek alde bozkatuta eta 3 zinegotzi abstenituta (EH BILDUko 2 eta EEEko 1), proposatutako mozioa onartu da. Hona hemen mozioaren testua:

Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetan

Azaroaren 25ean emakumeen beraien eskubidea aldarrikatu nahi dugu, espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera. Hitz batez, norberaren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatzea.

Emakume askok aurrerapenak lortu dituzte, banaka egindako ahalegin tematiaren bidez; bai eta mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek egindako lanaren bidez ere, espazio publikoak eta pribatuak gizonen eta emakumeen artean banatzeko dikotomia gainditzeko helburuarekin. Hala ere, bi aldeen arteko desberdintasuna agerikoa da oraindik, batzuek eta besteek bizitza publikoan parte hartzeko izan dezaketen erabilera, bai eta gure hirietako eta herrietako kaleez gozatzeko eta haiez jabetzeko orduan ere.

Berdintasunezko erabilera hori murrizten duten mekanismo anitzen artean, sexu-indarkerian jarri nahi dugu fokua; izan ere, mundu osoko emakumeak eta neskatilak espazio publikoan sufritzen ari dira.

Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio sozial zehatz bat: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea, hain zuzen ere. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du. Era berean, haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoko okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak kontrolatzea ere.

Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioen betebeharra eta helburua da eskura dituen estrategia eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek beren herritartasun osoa gauzatu ahal izateko gure hiri eta herrietako espazio fisikoan, eta horiek erabiltzea, berdintasun-baldintzak bermatuta.

Kontuan izan behar dugu erreklamaturako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko sarbidera eta askatasunera zabaltzen dela; sozializatzeko, bere egiteko eta eraldatzeko, emakumeen eta nesken interesen, nahien eta beharren arabera.

Toki-administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.

Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, «Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak», espazio publiko seguruak eta ahalduntzaileak sustatzen du emakumeentzat eta neskentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabe, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri-Itunaren ildotik.

Esparru horretan, Eskoriatzako Udalak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:

- 1. Era sakonean ezagutzea emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko politiken diseinuan eta garapenean kontuan hartzeko.*
- 2. Lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra bultzatzea, espazio publikoetan sexu-indarkeriari aurrea hartzeko eta erantzuteko. Eta, era berean, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitate-mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatzea.*
- 3. Aldaketak bultzatzea jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskatok indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan.*
- 4. Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan hautemandako segurtasun errealari dagokionez; genero-ikuspegia ziurtatzea hiri-plangintzan, emakumeen beharrianak kontuan har daitezen.*
- 5. Berdinsarea tokiko jardunbide sare gisa indartzea, ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutza-trukea errazteko. Eta hiri eta herri seguru eta inklusiboak lortzeko, emakumeentzat eta neskentzat.*
- 6. Beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foru-aldundiekin besteak beste; gizarte-taldeekin, feministekin, ere, emakumeek eta neskek aukera izan dezaten espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko.*

14.- GALDE-ESKEAK.

Alkateak hitza emanda, bi pertsonak hitz egin dute, eta nahiz eta nortzuk diren esan ez, bakoitzak esandakoaren arabera ondorioztatzen da Eskoriatzako mugimendu feministen izenean hitz egiten dutela.

Lehenengo hitz egin duenak:

Azaroaren 25eko astean gaude, eta badakigu aste horretan lantzen dela emakumearen aurkako tratu txarren gaia, eta, ondorioz, gaia ikusarazi eta horren aurka egin behar dela. Hemen gaude Eskoriatzako mugimendu feminista, taldearen ordezkari bat, talde oso apala, baina bizia eta aktiboa da, arazoekiko sentikorra, eta horregatik, aste honetakoa, Gurasoen Alienazio Sindromean (GASen) zentratu gara. Ez dakit galde diezazuekedan ea dakizuen zer den GASa, entzun ote duzuen..., badakit orain ez dela horretan sakontzeko unea, ezta tokia ere, baina bada hori zer den ezagutzeko eta jarduteko garaia. Bihar horri buruzko hitzaldi bat dago, eta primeran legoke zuek gehiago ezagutzea zer den GASa eta emakumeekiko eta beraien seme-alabekiko suposatzen duen tratu txar egoera eguneroko bizimoduan. Gainera, “pilak jarri” beharko zenituzke, are gehiago, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, 2020ko irailean,

GASaren erabileraren aurkako transakzio-zuzenketa bati, EAJK, EH BILDUK eta Alderdi Sozialistak sinatu eta adostu zutenean, bai Gipuzkoako Foru Aldundiari bai Eusko Jaurlaritzari ekintza oso zehatzak egitea eskatzen zien ekimen bat, non geratu dira ekintza horiek? Non geratu dira bi urte beranduago okerrago bagaude? Entzun berri ditugun adierazpenek, ba, ekimen hura bezalakoa, asmo onetan bakarrik geratzen badira, EZ dute ezertarako balio. Zerbait egin dezazuela nahi dugu, zuek zerbait egitea behar dugu. Emakume askorentzat eta beraien seme-alabentzat egoera penagarria da egunerokotasunean. Politikari guztiek esaten duzue politikan pertsoneri laguntzeko zaudetela, ba erakutsi! Egoera honetan ez dute inolako eraginik ez Ukrainako gerrak, ez inflazioak, ez ezerk. Jarrera besterik ez da! Eta hobekuntzak ikusi nahi ditugu.

Hitz egiteko txanda amaitzeko hitza eman dio bere kide bati, eta esan du erregistratuko duten eskaera egingo dutela erantzunen bat jaso ahal izateko.

Bigarren hitz egin duenak:

Aurten, azaroaren 25erako, emakumeenganako tratu txarren aurkako egunerako, GASa edo ustezko Guraso Alienazio Sindromearen gaia landu dugu. GASaren ondorioz, ama horiek beraien seme-alabengandik banatzen dira, eta horien zaintza tratu txarrak ematen dituzten aitei ematen zaie, modu partzial edo osoan. Berrito diogu; GASa edota ordezeko kontzeptu bat erabiliz, epaile eta prozesuan parte hartzen duten erakunde guztien oniritziarekin haurrak bere amarengandik banatzen dira, beraien zaintza tratu txarrak ematen dituzten aitagian utziz. Geure buruari, eta zuei, gizartearen kudeatzailerentzat zureten ordezkari politikoei, galdetzen dizuegu: nola da posible sententzia horiek ematea? Hori al da seme-alaba eta ama horientzako traturik duinena? Hau da tratu txarren emaitzarekin haurrak dituzten emakume askoren egoera: bikotekidearengandiko tratu txarrak isilean jasan eta gero salaketa jarri eta banantzerara ausartu ondoren, oraindik ere urte gehiago pasatu behar izaten dituzte erakunde judizialek eta prozesuan parte hartzen duten gainerako instituzioei azkenean beraien umeengandik bortizki banantzeko. Seme eta alaben haurtzarora eta gaztaroko zati haundi bat galaraztea, bizitzaosorako zauri emozionalak sortzea... ez al da hau izugarritzko zapalkuntza? Eta hemen, Euskal Herrian ere, instituzioak emakume asko ari dira modu honetan kolpatzen. Hain zuzen, NB erakundeak bost aldiz deitu dio arreta Espainiako epailetzari GASaren babesarekin emandako epaiak berrikusi ditzan. Eta Eskoriatzan horregatik diogu Instituzioek ere emakumeok kolpatzengaituztela. Bizitza hobetuko baten alde lan egiten duzuen politikariei honako hau eskatzen dizuegu:

1- Zuen alderdien agenda politikoan sartu dezazuela GASa, haren ordezekoak ezabatu eta berriro aplikatuko ez dela bermatzea, eta aldi berean GASean oinarri hartuta eman diren epaiak berrikusteko eskaera egitea.

2- Gure herrian genero desberdintasuna ikusten eta jasaten dugunez, udalean berdintasunerako teknikari bat jartzea, udaleko langile guztiak formatuko dituen.

Berdintasun teknikari baten beharra ikusten dugu herrira begira berdintasun dinamikak sortu eta antolatzeko. Ildo horretan lan egiten saiatzen gara, baina gure jarduna oso mugatua da. Horregatik, uste dugu oso garrantzitsua dela urtean zehar elkarrekin lan egitea, orain artean egon diren hutsune larriak berriro errepikatu ez daitezen; aurtengo San Pedro jaietan segurtasun-protokoloarekin gertatu dena, adibidez.

Feminismoarekiko erantzukizuna hartzea ezinbestekoa da herria zaindu nahibada.

Espero dugu, bi eskaera hauek kontuan hartu eta zuen iritzia idatziz jartzea.



Bi pertsona horiek hitz egin ondoren, alkateak eskatu die sarrera eman diezaiotela egindako eskaerari, dagokion informazio-batzordean aztertu ahal izateko.

Dorleta Sologaiak: gustatuko litzaidake jakitea, eskaera-idazkiari sarrera eman ondoren, gaia aztertuko den Batzorde informatzailean parte hartzeko aukera izango luketen.

Alkate jauna: ondo dakizunez, batzorde bakoitzak bere arauak eta funtzionatzeko modua ditu; horregatik, guk, printzipioz, hemen ezin diogu horri erantzun. Batzorde bakoitzak bere egitura eta funtzionatzeko moduak ditu.

Dorleta Sologaiak adierazi dio Udal Erregelamendu Organikoan herritarrek batzordeetan parte hartzea eskatzeko aukera jasotzen dela gai zehatzak direnean, eta testu arauemaile horren 43. artikulua aipatu dio.

Alkate jauna: nik esan dizut araudiak ezartzen duen bezala jokatu dugula, eta gaia ez dela bilera honetan aztertuko, baizik eta batzordean bertan. Berriz diot batzorde bakoitzak bere araudia duela eta errespetatu egingo dela.

Eskaera egin duenak (publikotik bigarren hitz egin duenak) azpimarratu du garrantzitsua dela gai hori guztion artean lantzea, eta eskertzekoa litzatekeela batzorde informatzailean ere parte hartzeko aukera ematea. Eta, bere esanetan, beraiek ezin badute parte hartu, bai ekarpenak egin eta aurrerapausoak eman ditzaketenek. Izan ere, adierazpenak ondo dauden arren, beharrezkotzat jotzen dute emakume batzuk eta haien seme-alabak jasaten ari diren tratu txarren gaia hain garrantzitsuari aurre egitea, pixkanaka bada ere, ahalbidetuko duten jarduerak aztertzea.

Alkateak erantzun dio: ez dakit ez dudan argi hitz egin, baina uste dut behin baino gehiagotan esan dizuedala lehenik idazkiari sarrera eman behar diozuela, gero batzordean aztertu ahal izateko, eta batzorde horrek erabakiko duela zer urrats eman behar diren. Hortik aurrera, batzordeak erabakiko du nori deitu edo norekin jarri harremanetan. Batzorde bakoitzak bere funtzionamendu-arauak ditu, eta jarraitu egingo zaie. Hortik aurrera, ekarpen guztiak ongi etorriak izango dira. Hortik sortzen dena..., ba, bakoitzak bere balorazioak egingo ditu. Baina, hemen, bide ofiziala jarraituz gero, ate guztiak irekita egongo dira.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:30ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 25/10/2022.

2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 16 de noviembre de 2022.

De forma expresa se da cuenta de la aprobación del expediente de modificación de créditos N° 23.

3.- APROBACION DE INCREMENTO RETRIBUTIVO ADICIONAL DE LOS EMPLEADOS MUNICIPALES PARA 2022

Al amparo de lo contemplado en el art. 23 del Real Decreto-ley 18/2022, por el que entre otras se aprueban medidas en materia de retribuciones del personal al servicio del sector público. y de conformidad con el dictamen de la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, por unanimidad , el Pleno ACUERDA:

Primero: Aprobar, con efectos 1 de enero de 2022, un incremento retributivo adicional del 1,5 %, respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2021, de las retribuciones de todo el personal al servicio de este Ayuntamiento.

Segundo: Hacer efectivos dichos incrementos en la nómina correspondiente al mes de noviembre

4.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO (art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el tercer trimestre de 2022.

El Pleno, con la asistencia de 9 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

5.- APROBACION DE BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

- Baja de derechos pendientes de cobro **por prescripción**: 35,72 €.

BAJAS DE IMPUESTO MUNICIPALES APLICADAS AL PRESUPUESTO DESDE 01/07/2022 AL 30/09/2022

NIF	CONCEPTO	AÑO	LIQUIDACIÓN	CUOTA	RECARGO	TOTAL	MOTIVO
15302432A	IBI TERRENO RÚSTICO	2010	3R0308068100W	14,60	2,92	17,52	PRESCRIPCIÓN.GEA
15302432A	IBI TERRENO RÚSTICO	2011	3R0308068110O	15,17	3,03	18,20	PRESCRIPCIÓN.GEA
TOTAL				29,77	5,95	35,72	

